



DEIALDIA, PARTAIDETZAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2024ko abenduaren 11n emandako ebazpenaren bidez onetsi du Partaidetzako teknikari lanpostu bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko.

Hautapen-prozesua honako hauetan xedatutakoaren arabera egingen da: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena; 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duena; aplikatzekoak diren gainerako arauak, eta deialdi honetako oinarriak.

OINARRIAK

1. Xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da Partaidetzako teknikari lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta B mailakoa, lekualdatze-lehiaketa bidez betetzea.

Deialdiaren xede da plantilla organikoan kode honekin identifikatutako lanpostua:

1-209500-4

1.2. Hasieran deitutako lanpostu horiei gehitzen ahalko zaizkie kalifikazio-epaimahaiak deialdia egin duen organoari lehiatzaileen zerrenda (lortutako puntuen hurrenkeraren arabera) igortzen dion egunean bete gabe dauden lanpostuak ere.

Era berean, lanpostu horiek deialditik kanpo uzten ahalko dira, dela birkokatze prozesuei lotuta gelditzen direlako, dela jarduneko zerbitzura itzultzen direnei esleitzen zaizkielako, nahiz antolamenduan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Halaber, lehiaketan lanpostua lortzearen ondorioz izangaiek hutsik utzitako lanpostuak ere beteko dira lekualdatze-lehiaketa honetan.

Aurrekoa gorabehera, ez dira eskainiko lekualdatze-lehiaketan beste lanpostu bat lortu duten lehiatzaileek hutsik uzten dituzten lanpostuak, baldin eta lanpostu horiek "iraungitzeak" direlako bete behar ez badira edo antolakuntza-arrazoiengatik horiek betetzea beharrezkoa ez bada.

Deialdiko zazpigarren oinarrian aipatzen den lanpostu hutsak hautatzeko epean, deitutako lanpostuen ordez, organo eskudunek egin ahal izan dituzten aldaketen arabera egoki direnak jartzen ahalko dira, zerbitzuaren beharren arabera.



2. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Indarrean den araudian xedatutakoaren arabera, lekuz aldatzeko lehiaketa honetan parte hartzen dutenek betekizun hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta esleitutako lanpostuaz jabetzeko unean:

- a) Iruñeko Udaleko edo haren erakunde autonomoetako langile finkoak izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere.
- b) B maila edo taldean sailkatua egotea, Partaidetzako teknikari lanpostuan.

2.2. Deialdi honetan parte hartzen ahalko dute, betiere eskatutako baldintzak betetzen badituzte, lanpostu-erreserbarik gabeko borondatezko eszedentzian daudenek, bai eta nahitaezko eszedentzian daudenek ere, baldin eta administrazio-egoera horretan gutxienez urtebete eman badute. Horrela, zerbitzu aktibora itzultzea eta lanpostu bat behin betiko esleitzea lortuko dute.

Zerbitzu aktibora lanpostu huts bati behin-behinekoz atxikita itzuli diren langileak nahitaez aurkeztu beharko dira lekualdatze-lehiaketaren deialdi honetara, behin betiko destinoa esleitu dakien.

2.3. Lehiaketa honetan parte hartzeak ez du ekarriko, inongo kasutan, parte hartu aurretik lehiatzaileek zuten araubide juridikoa aldatzea.

2.4. 2009ko urtarrilaren 1aren ondoren, dagozkien probak gaindituta, Nafarroako edozein administrazio publikotan euskara edo Europar Batasuneko hizkuntzaren bat jakitea derrigorrezkoa den lanpostuetan sartu direnek hizkuntza hori jakitea derrigorrezkoa duten lanpostu hutsak bakarrik hautatzen ahalko dituzte.

Dena den, aurreikuspen hori ez da aplikatuko baldin eta, jakin behar den hizkuntza kontuan hartu gabe, hautapen-prozesuko emaitzak aukera eman balio interesdunari baldintza hori ezarrita ez zeukan lanpostu bat eskuratzeko.

3. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamabost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdi honi dagokion aipamenean.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea modu telematikoan aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:



- Deialdi honen I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera alegatzen diren merezimendu guztiak egiaztatzeko agiriak.
- Lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emana, eta emandako zerbitzuen ziurtagiria, lan egin duten enpresek eta/edo administrazio publikoek emana, bete dituzten lanpostuak egiaztatzeko. Horretatik salbu geratuko dira Iruñeko Udalean emandako zerbitzuen inguruko merezimenduak, horiek ofizioz egiaztatuko baitira.

3.4. Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak galdatuko dira.

Administrazioak edonoiz eskatzen ahalko dizkie izangaiei deialdian parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako agirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Izangaiek behar bezala ordenaturik aurkeztu eta justifikatu beharko dituzte merezimenduak, I. eranskineko baremoan ageri den puntuazio-eskemari jarraituta.

4. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiz, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

4.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute, bost egun naturaleko epean, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta, erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko. Erreklamazioak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpenean zehazten den bidetik aurkeztuko dira.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkezten ez bada, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaritzen duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Baztertutako izangairik ez balego, behin betiko zerrenda onetsiko da zuzenean, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.5. Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta eta haien gainean ebatzi ondoren, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko.

5. Kalifikazio-epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduketa.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Elian Peña Guerrero, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaiburu ordezkoa: Rubén Unanua Ruiz, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako zuzendaria.

Epaimahaikidea: Ana Isabel Etxaleku Castaño, Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzarako eta Boluntariotzarako atalburua.



Epaimahaikide ordezkoa: Estíbaliz López Mariñelarena, Klima Aldaketaren Aurkako Ekintzak Koordinatzeko atalburua.

Epaimahaikidea: Carola Castellà Jorba, Bartzelonako Diputazioko Tokiko Gobernuendako Partaidetzako Bulego Teknikoetarako arduraduna.

Epaimahaikide ordezkoa: Miriam Arregui San Martín, Iruñeko Udaleko Haurren Sustapen eta Komunitate-prebentzioko koordinatzailea.

Epaimahaikidea: Mónica Sánchez Ibáñez, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Leyre Gamboa Ramos, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Idazkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

5.2. Epaimahaia onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratu beharko da.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengoa bildu gabe.

5.4. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira. Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko du deialdiaren oinarriak aplikatzean sortzen ahal diren arazo guztiei buruz.

5.6. Epaimahaiak aholkulari espezializatuak edukitzen ahalko ditu, eta aipatu aholkulariak zein bere espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6. Merezimenduen balorazioa.

6.1. Kalifikazio-epaimahaiak eginen du merezimenduen balorazioa, honako baremo honekin bat:

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: 30 puntu gehienez ere.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa: 10 puntu gehienez ere.

6.2. Izangai bakoitzak aurreko bi apartatuetan alegatu eta frogaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean jasotako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko dira.

Merezimendu guztiak –administrazio publikoetan emandako zerbitzuen ingurukoak barne– agiri bidez alegatu eta frogatu beharko ditu izangai bakoitzak lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean, salbu eta Iruñeko Udalean egindako zerbitzuei dagozkien merezimenduak, administrazio horrek ofizioz egiaztatuko baititu.



6.3. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu lehiaketan parte hartzen duten izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduen gainean.

6.5. Behin merezimenduen kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitara emanen ditu parte-hartzaileek lortutako puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea irekiko du interesdunek merezimenduen balorazioaren gainean eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten.

6.6. Lehiatzaileek guztira lortzen dituzten puntuetan berdinketarik bada, administrazio publikoen zerbitzuan antzinasunetik handiena dutenen alde joko da. Halere berdinduta badaude, adin handieneko lehiatzailearen alde ebatziko da.

7. Izangaien zerrenda lortutako puntuazioaren arabera, eta lanpostu hutsak hautatzea.

7.1. Behin kalifikazio-epaimahaiak aurkezten diren erreklamazioak ebatzita, horrek Udalaren webgunean argitaratuko ditu izangai guztien behin betiko puntuazioak, eta izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, igorriko dio, espediente osoarekin batera, Giza Baliabideetako zuzendariari; azken horrek, hala badagokio, bidezkoa den ebazpena emanen du, lanpostuak gehitzeko aukerari buruz deialdi honetako lehen oinarrian xedatutakoarekin bat.

Behin aurreko izapidea beteta, parte-hartzaileen eskura jarriko da hautatzen ahal dituzten lanpostuen zerrenda, Udalaren webguneako deialdiaren fitxan argitaratuta, eta hamar egun balioduneko epea emanen da interesa duten parte-hartzaileek eskabidea modu telematikoan egin dezaten, erregistro elektronikoen bidez.

Deialdia egin duen organoak hautaketa- eta esleipen-ekitaldia egingen du, puntuazio-ordena kontuan hartuta.

Hautaketaren emaitzari buruzko informazioa Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da.

Adierazitako epearen barruan eskabidea igortzen ez duten izangaiek galdu egingen dituzte lehiaketaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko eskubide guztiak.

Lanpostuak hautatzeko epea amaitu ondoren, lehiatzaileek ezin izanen diote uko egin egindako hautaketari.

8. Lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Giza Baliabideetako zuzendariak interesdunen eskabideen arabera esleituko ditu lanpostuak, betiere horiek lortu duten puntuazioarekin bat.

Birkokatutako lehiatzaileei dagokienez, Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileen hitzarmen kolektiboaren II. eranskineko hamaikagarren artikuluan eta Iruñeko Udaleko langile lan-kontratudunen Hitzarmen kolektiboan xedatutakoa beteko da.

Lanpostu hutsak hautatzeak esan nahi du lehiatzaileak berariaz onartzen duela berak adierazitakoen artean esleitu zaion lanpostua, eta ezin izanen dio uko egin.

8.2. Behin lanpostu hutsak esleituta, Giza Baliabideetako zuzendariak dagozkion izendapenak egingen ditu, eta horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.



8.3. Izangaiek esleipenari buruzko ebazpena jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean hartu beharko dute lanpostuen jabetza, eta deialdia egin duen organoak ebazpenean bertan ezartzen ahalko du lanpostuaz jabetzeko eguna.

9. Errekurtsoak.

Errekurtso hauetako bat paratzen ahal da deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta oinarri horiek aplikatzeko egintzen aurka –egintzok ez baditu kalifikazio-epaimahaiak egin–:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, deialdia egin duen udal-organuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontaktuta.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2024ko abenduaren 11n emandako. Giza Baliabideen Arloko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.



I. ERANSKINA

a) apartatua: Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak baloratzeko, urte bakoitzeko puntu bat emanen zaio deialdia argitaratzen den egunera bitarte aintzat hartutako antzinatasunari.

Oharrak

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.
2. Lanaldi partzialean egindako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.
3. Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
4. Honako a) apartatu honi dagokion puntuazioa gehienez ere 30 puntukoa izanen da.

b) apartatua: Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 ikastordu), eta gehienez ere 8 puntu.

Oharrak

1. Baloratu beharreko prestakuntza-ekintzetan, ikastorduen zatikiak hainbanatuko dira.
 2. Ikastorduen kopurua ageri ez den ziurtagiriei 1 kredituko balorazioa emanen zaie.
 3. Ikasturte bateko iraupena frogatzen duten ziurtagiriei 12 kredituko balorazioa emanen zaie.
 4. Puntuazio berarekin baloratuko da erakunde antolatzailearen baldintza bete ez baina Administrazioak aginduta edo haren oniritziarekin eginak diren prestakuntza-saioetan parte hartu izana, halako prestakuntza-saiotzat joko direlarik espresuki sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.
 5. Apartatu honetan ez dira baloratuko titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, ez unibertsitatekoak ezta unibertsitatez bestekoak ere.
- 2) Biltzar edo jardunaldietan txostenak edo komunikazioak aurkeztea, beka edo sariren bat jaso duten zientzia- edo ikerketa-lanak egitea eta aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea: Puntu bat, gehienez ere, epaimahaiak baloratu beharrekoa, kontuan hartuz lana edo jarduera pertsona bakar batek egin den edo taldekoa, eta biltzarra edo argitalpena zer esparrutakoa den (tokikoa, eskualdekoa, naziokoa edo nazioartekoa).

3) Sektore publikoan prestakuntza-saioak antolatu edo/eta halakoetan irakasle jardutea: gehienez ere, 1 puntu, epaimahaiak baloratu beharrekoa, haien iraupenaren arabera.

Oharrak, b) apartatu osorako

1. Deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten merezimenduak baino ez dira baloratuko 1. puntuan.
2. 10 puntukoa izanen da gehienez ere b) apartatu honi dagokion puntuazioa.